

Zakurraren biolina

UMEAK GINELA, txakurren bat azkura baretzeko edo arkakusoak haitzea hartzera bidaltzeko hankarekin hazka egiten ikusten bagenuen, “gitarra jotzen” ari zela esaten genuen. Txakurrek, ez dakit, baina zakurren batek joko du biolina. Biotin-jotzaile zakurren bat izango dela, alegia.

Jotzeko, biolinaren harien gainean uztaia dantzatu behar. Dantzak dakar musika, edo soinua. Uztaia hagar txoa, garai batean, pernanbuko (*Caesalpinia echinata*) zurez egiten

bazen ere, gaur egun beira edo karbono zuntzezkoak dira gehienak. Hagatxo horrek hari berezi bat tenkatzen du. Hari hori zaldien isatseko zurdaz osatzen da. Zaldiarena, garañoa edo zikiratua, baina beti zaldiarena. Behorren isatsa txizaz bustitzen da eta zurda ahulagoa du. Luthierraren arabera, uztaia hariak 150 eta 200 zurda artean izango du. Bioli-



Giovane donna con un violino (Emakume gaztea biolinarekin), Orazio Gentileschiren (1563-1639) margolana.

na ez den beste tresnetarako zurda gehiagokoak ere hariltzen dira. Hari instrumentu-jotzaileen artean diotenez, zurda zuriek soinu “leunagoa” eta beltzek “gogorragoa” sortzen dute. Itxuraz, beltzak batik bat kontrabaxuetan erabiltzen dira. Merkezurrean dabilzanek hari sintetikoak erabiltzen dituzte, nylonezkoak...

Uztaia hariak eta biolinaren hariak, bien artekoa gozatzeko, dantza ezta moldatzeko, igurtzialdiaren dardara—dantza guziak duen dardara— emankorra izan dadin, kolofonia behar dute. Horrek igurtzia, marruskadura areagotzen du, dantzan lotuagoan egiteko. Biotin-jotzailearen patrikan beti izango da kolofonia.

Zer da kolofonia? Batez ere koniferoetatik, batik bat pinuetatik (*Pinus* sp.) baina baita alertzeetatik (*Larix* sp.)

eta izeietatik (*Abies* sp. eta *Picea* sp.) eta ganauskatik edo ahuntzadarretik ere (*Pistacia terebinthus*) eskuratutako erretxinetik sortzen da. Erretxina urtsua denean trementina deitzen zaio. Hura destilatuta sortzen da kolofonia. Horrez gain makina bat gai sortzen da erretxinetatik: bikeak, uiak, break... ■



JAKOBA ERREKONDO



Aho lorea

EZ DUGU loreak jateko ohitura handirik. Jaten dugunean, lorea ahoratzen ari garela jakin ere ez, askotan. Orburua (*Cynara cardunculus* var. *scolymus*), esaterako, ez dugu loretzat. Landareak neguan ernamuina mugitu eta kimua garatzen hasiko da. Muskildu eta lilitxak, lorea izango denaren zortanak, gora joko du. Gara honek ninikak ninikatzen ditu, ninikadura da hori. Gero pinpinatu egingo da, ninika muturretan pipilak pipiltzen hasiko dira. Pipila piportzen denean, toto betetzen denean, moztu eta ahora. Gazte gozo guri bigun leun ezti da gutizia. Bere horretan utziko bagenu, pipila lore bilakatuko litzateke. Argazkikoa horixe duzu, orburuaren lorea. Dotorea, pinpirin askoa! Argazkiko hauek, udaberrian jan ez zituztenak, udaren hasieran loretan Zestoako Iruretxiki baserrian, Ibañarieta mitikoan. ■